



## "Nicolás Guerendiaín" Irungo Errepublikarrak

Centro Cívico Palmera-Montero, local 4

Leandro Agirretxe, 1 - 20304 Irun

Tel.: 669 075423 – P.K.: 10008

[www.asociacionrepublicanairunesa.org](http://www.asociacionrepublicanairunesa.org)

[140431@asociacionrepublicanairunesa.org](mailto:140431@asociacionrepublicanairunesa.org)

Egun on guztioi.

Aurten ere bigarren Errepublika aldarrikapenaren 95. Urteurrena ospatzeko bildu gara.

1931ko apirilaren 14an, hauteskunde libreen ondoren, funtsezko balioak defendatzen zituen Konstituzioa onartu zen, 6. Artikulokoa honela zioen: **"Espainiak gerrari uko egiten dio nazioarteko politika tresna gisa".**

luz ohararazi genuen moduan, gobernuak gerrarako ari ziren prestatzen. Nola, egunez egun, hedabideetatik beldurra zabaltzen joan ziren eta etsai lauso bat eraiki zen justifikazina justifikatzeko.

Gaurkoan ere, argi eta garbi **GERRARIK EZETZ DIOGU.**

Gerrate hau imperialista da, baliabideak kontrolatzeko eta korporazio handiak aberasteko da, bitartean gehienek bere bizitza, etorkizuna eta duintasunarekin ordaintzen dute. Gerrek gosea, heriotza eta sufrimendua besterik ez dakarte.

Faxismoa berriz hazten ari da. Beldurra, gerra eta gorrototik elikatzen bait da.

Gaur egun sufrimendu hori Palestinan, Libanon, Iranen eta munduko beste hainbat lekutan ikusten ari gara.

Gerraren, faxismoaren eta militarismoaren aurka argi eta garbi diogu: **EZ ARMA, EZ ARMADARIK ETA EZ MILITAR AURREKONTU GEHIAGORIK ERE**

Guk eskolak eta hospitaleak behar ditugu. Baita etxebizitza duinak eta zerbitzu publiko sendoak.

Herri eta herritarrok ez dugu gerrarik nahi, justizia, bakea eta duintasuna behar ditugu.

Frankismoaren zilegitasun eza salatzen dugu, baita ere haren legatuaren jarraipena. Diktaduraren oinordeko monarkia salatzen dugun bezala.

**Ez dugu ahazten eta barkatzen ere Errepublikari uko egitea.**

Izan ere, diktadoreak aldarrikatutako, "bata, handia eta askea" kontsigna autoritarioaren aurrean, duela 95 urte apirilaren 14an aldarrikatutako erregimen errepublikarra berrezartzea eskatzen dugu. Bigarren Errepublikaren konstituzioarekin sortu ziren balioak aldarrikatzen ditugu. 1936ko uztailaren 17an estatu kolpearen ondorioz indarrez kendu zizkiguten balioak hain zuzen ere.

Errepublikaren aldeko borroka hontan, bake, etorkizun duina eta justizia aldarrikatezen ditugu faxismoaren kontra.

Urtero bezala, ekitaldi xume hau gaur egun partekatzen ditugun ideiak defendatu eta borrokau zituztenak gogoratzeko eta omentzeko balio izatea nahi dugu, baita azken urte hauetan gurekin izan diren eta haien artean arrazoi medio direla, gurekin gaur egun ezin diren pertsona guztiak gogoratzeko eta omentzeko ere.

**Gora Errepublika!**

**Gerrarik ez!**

**Faxismorik ez!**